

# **DIRU SARRERAK**

Diru sarrerei dagokionez, bi atal desberdinduko ditugu; batetik, hasierako inbertsioari aurre egiteko diru sarrerak aztertuko ditugu eta bestetik, ohiko jarduneko diru sarrerak.

Hasierako inbertsioei dagokionez, 15000€ inguru behar ditugu. Bazkide bakoitzak 1000€-ko ekarpena egingo du, eta SL bat sortuko dugu diru honekin. Gainontzekoa finantzatu ahal izateko, bankuari mailegu bat eskatuko diogu, 5 urtetan itzultzeko (hilabetero 230€-ko kuota ordainduz).

Ohiko jardunari dagokionez, Balder plaka ekoiztearen kostu unitarioa 70€/m<sup>2</sup>-koa da eta salmenta prezioa aldiz, 379€/m<sup>2</sup>-koa. 15 m<sup>2</sup>-ko azalera duten plakak saldu beharko genituzke hilabeteko gastu finkoei aurre egiteko. Hortik aurrerako salmenta guztiak irabaziak emango dituzte.

